



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

ESKOLAKO AGENDA 2030

2024-KO ABENDUA

UROLA KOSTA

2024-2025 IKASTURTEA



12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



ZER DA EA2030?

Eskolako Agenda 2030 Nazio Batuen Erakundeak sustatutako programa bat da, hezkuntza-komunitatearen konpromisoa eta ikastetxearen eta haren ingurunearen ingurumena eta alderdi soziala hobetzeko ekintza plana da.

Jarrian, Eskolako Agenda 2030en funtsezko oinarriak zerrendatzen dira:


- Eskolaren ingurumena hobetzea
- Berrikuntza eta hezkuntza-kalitatea lortzea
- Tokiko komunitatean parte hartzea

Programa hau, Nazio Batuen 17 Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) orinarritzen da. Ikasturte bakoitzean, GJH bat aukeratzen da, eta horren inguruan lantzen da programa. Gaia aztertu eta eskolaren eta eskolako ingurune hurbilenaren egoeraren diagnostikoa egiten da. Azkenik, ikastetxeek hobetu beharreko ekintzak definitu eta abian jartzen dituzte eta udalari hiria hobetzen laguntzeko ekintzak proposatzen zaizkio.



2024-2025 IKASTURTEA

2024-2025 ikasturtean zehar 12. Garapen Jasangarrirako Helburuaren inguruan lan egingo dugu, **ekoizpen eta kontsumo arduratsua** lortzea helburu du- elarik. Horrela, aurten, gure herrian aurkitu daitezken kontsumo ohitura ez- berdinak aztertuko ditugu, tokiko egoeraren argazkia lortzeko asmoz. Argazki honek, udal diagnostiko bat egiteko balioko digu, eta horrela, gure ingurunean dauden kontsumo ereduak ezagutu ahal izango ditugu. Ondoren, ekaineko udal foroan, udal ordezkariari ikasturtean zehar ateratako ondorioak azalduko dizkiegu eta udal mailako kontsumo ohiturak hobetzeko propo- samenak egingo dizkiegu.




Ikasturte honetan, 4 udalerritako 11 ikastetxek hartuko dute parte EA2030 programan, hau da, 5.099 ikaslek guztira. Zehazki, hurrengo ikastetxeek hartuko dute parte:

- Zarautzen, Antoniano Ikastetxea, La Salle Ikastetxea, Salvatore Mitxelena Ikastola, Lizardi Institutua, Orokieta Herri Eskola, Oteitza Lizeo Politeknikoa eta Monte Albertia ikastetxea
- Zestoan, Aizarna LHI eta Arroa LHI ikastetxeak
- Zumaian, Zumaiena ikastetxea
- Getarian, Iturzaeta Herri Eskola

LEHENENGO URRATSAK

2024-2025 ikasturteko programa martxan jartzeko lehenengo pausua eskola arteko foroa da. Foro honetan, udalerrri bakoitzeko eskola guztiak batzen dira aurreko ikasturtean landutakoa errekuperatu eta ikasturte honetan landuko denari hasiera emateko.






HASIERAKO FOROA

Azaroko eta abenduko hilabeteetan zehar, EA2030eko 2024-2025 ikasturteko programaren hasierako foroak ospatu ditugu. Ekitaldi hauetan ikasturte honetako gaia ezagutu dugu, ekoizpen eta kontsumo arduratsua.



Gainera, gaia eta honek dakarren problematika hobeto ezagutzeko, dinamika bat burutu dugu etxean eta ikasgeletan ditugun kontsumo ohiturak aztertzeko.

Zein kontsumitzaile mota naiz?

-  Oraindik ez dut kontsumo kontziente eta arduratsu bat egiten.
-  Kontsumo kontziente bat egiten hasten ari naiz.
-  Kontsumo kontziente eta arduratsu bat egiten dut.



Orokorrean, gure kontsumo jokabideak jasanga-riagoak bihurtzeko hobetzeko aukera dugula ikusi dugu.

Zein izango da udal mailan aurkitzen dugun egoera? Gurekin deskubritu nahi? Goazen ba!

ESKOLAKO AGENDA 2030
UROLA KOSTAN